



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA**  
**AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C  
Tel: 948 76 43 75  
junta@aezkoa.net  
valledeaezkoa@gmail.com  
www.aezkoa.org

## AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA

### 2022rako lan publikoaren eskaintza

Aezkoako Batzarre Nagusiak, 2022ko maiatzaren 12an egin osoko bilkuran, eta bete beharrez abenduaren 28ko 20/2021 Legeak xedatutakoa (Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murizteko premiazko neurriei buruzko Legea), erabaki hau hartu du:

**Lehena.**—2022ko lan publikoaren eskaintza onestea, honako lanpostu hauek barnean direla:

—Euskara teknikari lanpostu bat (1). B maila. Osagarriak: %20. Lan kontratudun finkoa. Euskara: C2. Lanaldia: %100.

—Basozain-informatzaile turistikoen 2 lanpostu. D maila. Mailako osagarria %12. Lanpostuko osagarria: %2,7. Euskara: B2. Izaera: aldizkako lan-kontratudun finkoa.

—Garbiketako peoi lanpostu bat (1). E maila. Mailako osagarria: %15. Lanpostuko osagarria: %8,21. Lanaldia: %41. Euskara: merezimendua.

Lanpostu horiek beteko dira merezimendu-lehiaketa bidez (azaroaren 28ko 20/2021 Legearen 6. xedapen gehigarria), behin bakarrik eta salbuespenez.

—Basozain-informatzaile turistikoen 3 lanpostu. D maila. Mailako osagarria: %12. Lanpostuko osagarria: %2,7. Euskara: B2, nahitaezkoa. Aldizkako lan kontratudun finkoa.

Lanpostu horiek beteko dira oposizio-lehiaketa bidez (azaroaren 28ko 20/2021 Legearen 2.4 artikulua). Puntuazioa: 40-60.

**Bigarrena.**—Lan publikoaren eskaintza argitaratzea web-orrian, Batzarrearen iragarki-taulan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, arloan indarrean dagoen araudia bete dadin.

**Hirugarrena.**—Ebazpen hau jakinaraztea lan publikoaren eskaintzak ukitutako lanpostuetan diharduten Batzarreko aldi baterako langileei.

Idazkaritza-lanpostua ere hutsik dago, eta egonkortze-prozesuan dago. Toki-administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiak garatuko du dagokion deialdia, eta bertan sartuko dira Foru Komunitateko gaikuntza duten langileentzako (Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako lanpostuak) aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak, aplikatzekoa zaien araudia egokituz. Beraz, lanpostu horretarako deialdia ez du haraneko Juntak zuzenean egingo, Nafarroako Administrazioak baizik.

**Laugarrena.**—Ebazpen honen aurka, hautara, errekurso hauetako bat aurkez daiteke:

—Berraztertze errekurtoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

—Gora jotzeko errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazten denetik hasita.

—Administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Ariben, 2022ko maiatzaren 12an.—Batzarreko burua, Karlos Bueno Reka.